

ANDA ERRATZA

agartuko dira: Mariaño: Etcheke anderia
Josette: Mariañoren iloba
Magnagna: Neskatoa
Katicha Banbala: auzoko eazte bat

I

Taulen gainean: ~~tapisa-bat~~, mahi bat bere tapizarekin, cadera bat,
fautoila bat.

- MARIAÑO.: (sartzen eta oihu egiten) ~~Mariaño!~~ (ichtan bat)-Magnagna! Magnagna!
MAGNAGNA.: (burua agertzen du) Oihu egin duzu, Etcheke anderia?
MAR.....: Oihu egin dutanez?... Hamar, hogoi aldiz, araziz?
MAGN.....: Hauche da tantoa! multiplikazionea ontsa ikhasi duzu naski eskolan!
MAR.....: Uste dut, zuk erran duzun hori eskolan ontsa ikhasi dutala! Eta bertze
anhitz! Eta gero?
MAGN.....: Ah! gero erranen dauzut barkhamendurekin, hiruetan duzula oihu egin.
MAR.....: Jakin zazu Magnagna tuntuna, lehen oihuan behar zinukela lasterka jin!
MAGN.....: Lasterka! lasterka! aise ari zira zu, hogoi urthetan banintz bezala?
MAR.....: Zaude ichilik! (ichtan bat eta emekio) Errazu, Magnagna gaizua, zerbitzu
handi bat eginen dautazia?
MAGN.....: Etchekanderia, badakizu, zonbat nizan zuri atchikia, eta bethi zure ~~err~~
erran guziak egiten ditudala!
MAR.....: Badakit! Badakit! Bainan galdegiten badutzut zerbitzu bat! zerbitzu bat!
MAGN.....: Bainan zer, Etchekanderia?
MAR.....: (hurbiltzen da) Horra! (erakusten du pichtolet bat, Magnagna gilatzen da)
Kapable zirena hunen ibiltzeko, eta tiro baten tiratzeko?
MAGN.....: (harritua) Ama maitia! Holako tresna baten ikusterak berak izitzen nu!
Othoi polliki ibiltzazu!
MAR.....: Segur nintzan, sobera beldurtia zira, ez dut zure gainean khondatzen ~~aha~~
ahal etchearen zaintzeko.
MAGN.....: Nork uste duzu?....
MAR.....: Jakin zazu, tuntuna, sekulako ohoinen beldurra dutala egun hotan
MAGN.....: Alon! alon! Etchekanderia; ez othoi burua gal! Eta zendako sarthuko dira
ohoinak?
MAR.....: (aphaletik) Behazite, Magnagna, orhoit zira, nola orai duela sei hilabete-
ko bat, ihortzi dugun Bertrantto!
MAGN.....: Zure oseba?
MAR.....: Ba, ene oseba Bertrantto! Gizagaizua; gizon huna zen; ondoko egina ninde
duen, eta egun diru pochibat hunkitu dut, eta ganbaran gorde.
MAGN.....: Eta orduan, zu beldur ohoinak jin ditene ebasterat?
MAR.....: Hori bera Magnagna. Kasetetan ez duguia egun guziuz ikusten zonbat ohoi
ntza bazterretan!
MAGN.....: Ah! hori hala da! Joanden astean zarea ebatsi dautate epizerian.
MAR.....: Ba zare hutsa!
MAGN.....: Berdin munta du, bethea izan bazen bardin ebatsiko zautattan.
MAR.....: Zer dira oraiko epizeriako puchka hekiek, ene diru metaren aldian!
MAGN.....: Diru meta?!
MAR.....: Ba, diru meta! Ikhusten duzu arraizonik aski badutala ohoinen beldurra
ren ukhateko? Hortako hartuadut chedea, etchearen zaintzeko, tresnak es-
kuan.
MAGN.....: (ikharan) Ama saindua! Tresnak eskuan! Hortchetako hori bezalakoa?
MAR.....: Nork aiphatzen dauzu holako tresna, beldurti handia!

MAGNAGNA: Ai! Etchekandèria, ez hori! ez puñalarik! ez eta ere matrailletariki!
 MARIANO.: Bakia emazazu! Hautatuko dugu beste tresna bat eta azkarra. Gauza guti aski dute ohoinek ihesegiteko... Hautatuko dugu er haz bat gothor
 Ba.
 MAGN.....: (irria ezin atchikiz) Er haz bat!
 MAR.....: Eta harekin emanen duzu, hemen sartzen diren guzieren, zure bathere
 MAGN. guziaz sekulako zampa aldia.
 MAGN.....: (alegera) Badakit er hazaren berri aspaldian, eta horrekin ez niz ni
 nehoren beldur.
 MAR.....: Ederki, Magnagna. Orai, banoa Garalat ene ilobaren biderat. (jalitzerat
 johan da eta izultzen) Ah! behar ez denik ez dadin gertha, holachet
 joko dut borthan, lau aldiz. (egiten du nola)
 MAGN.....: Ordian, lau aldi jotzen ez duenari; Panba!
 MAR.....: Ontsa da! Sarri arte; beharriak eta begiak erne!
 MAGN.....: Gustian egon zite, etchekandèria, sarri arte.

II

MAGNAGNA: Hau huna diun! Er hazt ukhaldika behar dugula arizan! Er hazt ukhaldika
 behar dugula arizan! Ah! Er hazta. (johan da er hazt baten chekha ; biga
 ekhartzen ditu) Huna biga bat hausten bada ere. (chokho batean ezar-
 tzen ditu). Beharrena ahanzten dut, bortharaz gakhotzea. (johan da
 hesterat) gibelerat heldu da eta jartzen). Gaicho Mariaño! Kosketatik
 ari denez ahultzen? Beharre andere Josette heldu baita aferen chu-
 chentzeko. (ichtan bat) Eta orai, ere Magnagna! Eta behar badu; anda erra-
 tza! (jotzen dute. Magnagna chuti jzen da. Khantuz ari da: Cho! cho! Maria-
 ño!) (Berriz jotzen dute) Hori ez dun Mariaño! Ohoin zonbeit othe da?
 (altchatzen du erratza.) Atan! atan! mon pétit! Jakinen duk ene erratza
 ren berri. (Oihu egiten du) Nor da hor? (Boza bat) Ni! ni! -- (finki) Ni! ni!
 Nor da hor? (khanpotik boza bat) Ni! Katicha Banbala!
 Lehenik Katicha ez dun sekulan tenora huntan jiten. Eta gero, ez din
 iduri haren boza dela. Halarik ere zabaldeagun bortha. (idekitzen du
 eta gibelerat heldu lasterka) Là! Aitzina! (Nor bait sartzen da-Boza bat
 Jesus! nunzira Magnagna?
 (Magnagna aphaletik so egileri) Tanpisse! segurrak ez du parerik! nor
 nahi izanik, kaskotik beheiti emaiten dakot! (Nor baitek erakusten du
 burua, eta Magnagnak emaiten dako erratza ukhaldi handi bat erranez:
 Han!)
 KATICH: Hel! Hel! othoi, Magnagna! Hiltzen nute. -ouah! ouah! ...
 MAGN.....: (ohartu da nortzen). Zer mila sorgin! Hauche da tarrapata! Ez duzia
 sekulan erratz ukhaldi bat ukhan?
 KAT.....: (harritua) Erratz ukhaldi bat!
 MAGN.....: (altchatzen du erratza sudurran azpian) Ba, erratz ukhaldi bat!
 KAT.....: Zuk emanik?
 MAGN.....: Ba, nik emanik emazte demuntria!
 KAT.....: Zer jenderi egiteko ongi ethorria! Zer lothu zautzu?
 MAGN.....: Cho! Cho! Katicha. Berehala erranen dauzute; jar zite hor. Horra, berehala
 konprenituko duzu. Mariaño ukhan du diru meta bat, bere osaba
 Bertranttok utzirik, eta geroztik sekulako ohoinen beldurra du. Orduan
 galdegin daut hemen sartzen diren guzieren kaskoaren haustera erratz
 ukhaldika.
 KAT.....: Ba, bainan etzin duena ene boza ezagutzen?
 MAGN.....: Aise mintzo zira zu! Holakoetan, denborarik galdu gabe behar da joka-
 tu. Eta ohoinek eskarniatu balute zure boza?
 KAT.....: Egia da hori. (burua thorratzen du) Bainan emekichoño. ibili bazinu zure
 erratza!
 MAGN.....: Bauzia barutik? Emekichoño! Nik ez badut ohoina talua bezala aurdikitea

MAGNAGNA: Bauzia burutik? Emekichoño! Nik ez badut ohoina talua bezala aurdi-
kitzen, hak ni eginen nu! Ene buria maite gero nik!

KATICHA.: (burua atchikitzen du) Ba, nik ere.
(borthan jo egiten dute)

KATICHA.: Ama! Oraikotik ohoinak dira! (mahi azpian gordetzen da)

MAGN....: Bortha ez dut gakathu! Berdin munta du, ez dugu hortakotz lotsatu
behar. (hartzen dunerratza eta Katichak bertzia) Zuk harrazu hori.
(hitz horiek erraiten ditu mahiari bizkarrez dola)

KATICHA.: (burua agrtzen du mahiaren azpitik) Uz nezazu, othoi, beldur niz!

MAGN....: Ta! ta! ta! athera zite hortik eta ukhan beldurrik! (Katicha ja-
litzten da errepski) Har zazu errats hori eta hortaz eman. Eta gero en
eni, apugnatik; hé!

KAT.....: (ikharan) Ba...ba... Eginen dut indar bat. (buru bat agertzen da. Noitek
kuku!) (une volée de coups de balai et Josette s'affale, valise et pa-
rapluie roulent.)

III

(Katicha et Magnagna se regardent piteusement, les mains appuyées sur
le balai:

Ori propioiak gira!

JOSETTE.: (chutitzen da eta arranjatzen du chapela) Ouf! Hauche da errautsia!
Bauzea burutik!

MAGN....: Barkhatu andere Josette... agur, andere Josette.

JOS.....: (Magnagna bezala) Agur, andere Josette! Pulinda handia! (Katichari) Eta
zu sorgin zaharra!

KAT.....: Barka zaazu, andere Josette, ez da ene falta, Magnagnaren falta da.

JOS.....: Hortaz segur nintzan! Uste duzia denak haizu direla zuretzat? Zer ma-
nera dire hok? Ez zirea puchka bat kaskotik chilo? (zangoz jo egiten du)

KAT.....: (eskua buruan, jenderi beha) Nik segurik kaskoa chilo dut!

JOS.....: (Magnagnari) Nun da Ttantta? Bi hitz behar dakot erran zure gainean.

MAGN....: Etchekandaria kanpoan da, joana da garalat zure biderat.

JOS.....: Ene biderat, nik ez dut ikhusi, segura elgar huts egin dugula (ichtan
bat) Bainan errazu Magnagna, zer dire erratz ukhaldi horiek? Bauzia
burutik..

MAGN....: Ah! hori ez! (en scandant) Nik ez dut burutik; zure ttanttak du burutik.
(coleran) Eta gero asea niz kokorreano! Ez bazira kontent, zoazi ttan-
ttari esplikazionen galdegiterat. -azkenekotz nahi baduzu jakin,
erratz ukhaldiak ukhan badituzu, zure ttanttak erranik ukhan dituzu!
La!

KAT.....: (jenderi beha) Orai chimichtak, sarri ortzantzak!

JOS.....: (Magnagnari) Ttanttak erran duzula erratz ukhaldiak eni emaiteko? Eni!
eni!

MAGN....: Hemen sartzen ziren guzieren.

JOS.....: Baina, errazu zertako?

MAGN....: Zertako? zertako? Zure ttanttak diru meta bat ukhan baitu, eta geroztik
ohoinen beldur baita! Horra zertako!

JOS.....: Ah! herre-zertake orai konprenitzen dut! Ez da ohoinzarik baizik bazter
retan!

KAT.....: Errazu berriz; aski da kaseta zabaltzea ikhusteko.....

JOS.....: (l'interrompt) Zu zaude ichilik...! (Magnagnari) Ohoinen beldur zela-
kotz, ttanttak erran dauzu holako tanpakoan emaiteko. (burua thorratzer
du)

MAGN....: Barkhazaazu, anderia!

JOS.....: Ba, ba, barkhatzen dautzut. (ichtan bat) Grifa bat badut: Nolaz ez dudan
ttantta garan ikhusi.....

KAT.....: Oh! anderia, ez uste izan zerbait gertthatu zaiala.

JOSETTE: Nork daki? Behar bada ttantta garbiturik, ohoinak berehala hemen ditugu... Zer diozie?

KATICHA: Uste zia?

MAGNAGNA: Heu!...

JOS....: Beha zizte: Ohoinak ttantta garbitu ondoan, badaki ez dela hemen Magnagna beizik. Eta bandil baten kontra zer egin dezake emazte batek?

MAGN....: Oh! anderia jadanik ikharetan niz!

JOS....: Ez othoi izi, Magnagna, hemen bagira hiru baten kontra. Berehala prepara gaiten! Erratz hñri ez batere hoko gaichtoa, bazinaki zer hartzen duen kaskoak? (atchikitzen du burua eta Katichak ere bai) Eta nik badut balisan, bertze zerbeitño! (elle sort un pistolet qu'elle met sous le nez de Magnagna au recul effrayée)

MAGN....: Jesus! Maria! Joseps!

JOS....: Zer zira beldur? Ez da kargatia, bainan ikhusten duzu zer efetia egiten dien, hau sudurraren aitzinean emaiten delarik! (harrabots bat aditzen da borthako aldian)

MAGN....: Norbeit bada hor?...

KAT....: Ez da deus.

JOS....: Zer gertha ere prepara gaiten! Zu hor, Magnagna; zu aldiz hemen Katicha! Eta ni, hantchat mahainpian. Eta gero ez barkha! (au moment où auelau'un appareil, coups de balai, Josette bondit. Un corps s'effondre et le chapeau de Mariaño roule sur la scène) On entend: Ouff!. (tête des trois personnes)

IV

JOS....: (Hiruak lasterka, ttanttan altchatzeko) Zer arizan gira! Magnagna, fite zerbieta bat eta ur chorta bat!

(Magnagna jalitzen da. Bertze biak ezartzen dute Mariaño fotoil batean)

MAGN....: (jalitzean) Etzazula odol gaichtorik egin, anderia, zure ttanttak, zuk uste baino kasko gogorragoa du!

JOS....: Gaicho ttantta! (Katichari) kaskoa hautsi dakozie.

KAT....: Egia da; nik segurik ene bothere guziaz eman dakot! Ohoina izan balitz!

MAGN....: (heldu da zerbieta eta urarekin, inharrosten du Mariaño) Hé! Hé! Iritzar zite hortik. - Etchekanderia! Etchekanderia! noiz harrotuko zira, egun ala bihar? (Mariaño egiten du suspiro bat) (hiruak ukhurtzen dira)

JOS....: Igitu da!

KAT....: Ba, iduri zaut.

(A ce moment Mariaño pousse un Aah! en s'étirant. Les trois reculent effrayées)

MAGN....: (lehenik hurbiltzen da) Hé! Hé! Ez zira hila? Funtsea eta hobe! Zer ichtorioak bertzenez! (Eta Mariaño eskuak inharrosten ditu) Hobeki zira! Ez dea hala?

MAR....: (suspiro batekin) Ba..... Zer gertatu zaut?.... Norbeitetik burutik behiti eman daut!

JOS....: Oh! barkha, ttantta! Uste ginuen.....

MAR....: (erremetitzen da) Orai orhoitzen niz! Erratz ukhaldiak!

MAGN....: Hala da, Etchekanderia! Bulta huntan ez erratz ukhaldiz bertzerik etche huntan.

MAR....: (Ikhusis Josette) To, Josette! Hi ere hemen? (potaa emaiten dako) Piai huna egin duna?

JOS....: Ba, eta guk elgar huts egin.

MAR....: Huts egin? Hemen segurik ez! (burua thorratzen du; Josettek eta Katicha ere bai)

MAGN....: Aithor dut eta bietan aithor, tira ahala eman dutala!

KAT....: Bai eta nik ere.

MAR....: Zuk ere Katicha.

KATICHA.:Ba, ba, Mariaño.

MARIANO.:Horiek oro hola, behar dugu bihotz sokhorri chorta bat. Josette, habillene ganberalat; bufetan hatzemanen dun Benedictina botella bat; ekharrekharan...!

MAGN. eta. KAT.: (se passant la main sur la poitrine) Benedictina! Benedictina!
(garrazi bat ganbarako aldetik)

MAR.....: (chutitzen da) Zer da?

JOS.....: (harritua heldu) Oh! ttantta, Oh! ttantta,

MAR.....: Bainen mirakuilu da?

JOS.....: Ganbera guzia itzulipurdikatua da! Zure kesa ttipia puskatua, eta leihoa zabaldua!

MAR.....: Leihotik! leihotik sarthu da ohoina!!! (trenputchartzen da)

MAGN.....: (lañoki) Ori, bortha leihoak behar badira zaindu dozena bat muthil neskato hartetzala Mariañok eta bertze dozena bat erratz azkarrak!.
